# KULTURA PROGRAMAZIOA
# 2018 BERGARA

MUSIKA
DANTZA
ANTZERKIA
HAURRENTZAT EMANALDIAK

Urtarrila - Maiatza
Enero - Mayo

SEMINARIXOA

## **PLANOA** / PLANO




## **Sarrerak** / Entradas

Seminarixoko emanaldietako sarrerak eskuratzeko bi bide daude:
- Seminarixoko txarteldegian ostegunero 18:00etatik 20:00etara.
- ticket.kutxabank.es webgunearen bitartez.

Hileko lehenengo ostegunean jarriko dira, hurrengo hilabeteko sarrerak salgai.

Las entradas para las actuaciones de Seminarixoa se podrán adquirir de dos maneras:
- en la taquilla de Seminarixoa todos los jueves entre las 18:00 y las 20:00.
- en la web ticket.kutxabank.es

A partir del primer jueves de cada semana se pondrán en venta las entradas para el mes siguiente.



## Seminarixoa,
## kulturaren errekaren etorria

Tradizioa eta modernitatea, ondarea eta gizartea, iragana eta etorkizuna, zaindu eta berreraiki, historia jaso eta egin, ikasi eta zabaldu, hartu eta eman... kulturaz busti eta erein, kimu berriak hazi daitezen. Horrek guztiak batzen ditu Bergararen iragana, kulturaren errekasto garrantzitsuaren bitartez, etorkizunarekin lotzen duen agertoki berriak, Bergarako herriak merezitakoak.

## Seminarixoa,
## nuevo manantial de cultura

Tradición y modernidad, arte y utilidad, raíces y futuro, cuidar y reconstruir, recoger y hacer, aprender y difundir, tomar y dar... mojarnos de cultura y sembrar, para que crezcan los nuevos retoños. Este nuevo espacio, que fluye a través de la cultura entre el pasado de la localidad y su futuro, une a todos ellos en una infraestructura merecida por el pueblo de Bergara.

# KULTURA PROGRAMAZIOA 2018 BERGARA

## Musika / Música

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrilak 12 | 20:00 | Amorante | Seminarixoan | 8,00 € | |
| Urtarrilak 20 | 19:00 | Shoah for Solo Violin and Sacred Temple | Seminarixoan | 8,00 € | |
| Otsailak 23 | 20:00 | Jabier Muguruza | Seminarixoan | 8,00 € | |
| Martxoak 3 | 19:00 | Mozkorra parregarri | Seminarixoan | | |
| Martxoak 10 | 19:00 | HQ Quartett y Susana Cordón | Seminarixoan | 8,00 € | |
| Apirilak 21 | 20:00 | Artxipielagoa | Frontoian | 8,00 € | |
| Maiatzak 5 | 19:00 | Voces de cine | Seminarixoan | 8,00 € | |

## Haur ikuskizuna / Espectáculo infantil

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrilak 27 | 18:00 | Jon Braun | Seminarixoan | 4,00 € | |
| Otsailak 4 | 18:00 | Izar | Seminarixoan | 4,00 € | |
| Otsailak 10 | 16:15/18:30 | Pirritx eta Porrotx | Frontoian | 6,00 € | |
| Otsailak 24-25 | 16:00/11:20... | Kantari karaokea | Seminarixoan | Doan | |
| Martxoak 25 | 18:00 | Go!azen | Frontoian | 8,00 € | |
| Apirilak 15 | 17:30/19:00 | Erlauntzaren sekretua | Seminarixoan | Doan | |
| Apirilak 28 | 18:00 | Euria | Seminarixoan | 4,00 € | |
| Maiatzak 13 | 12:00 | Kontukantari | Seminarixoan | 4,00 € | |

## Antzerkia / Teatro

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrilak 13 | 19:00 | Etxeko saltsak | Seminarixoan | 8,00 € | |
| Otsailak 17 | 19:00 | Ez dok hiru | Seminarixoan | 8,00 € | |
| Martxoak 17 | 19:00 | 13 y martes | Seminarixoan | 8,00 € | Castellano |

## Bertso jaialdia

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Martxoak 23 | 22:00 | Bertso jaialdia | Seminarixoan | 8,00 € |

## Dantza / Danza

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Apirilak 14 | 19:00 | La Teta de Janet | Seminarixoan | 8,00 € |
| Maiatzak 12 | 19:00 | El fin de las cosas | Seminarixoan | 8,00 € |

**12** **Urtarrila** **Ostirala** **Enero** **Viernes** **20:00**

**Musika / Música**

Sarrera / Entrada: 8€



# Amorante

Amorante, Iban Urizar, bakarka igotzen da agertokira. Aldean darama gitarra, ukelelea, tronpeta, harmoniuma, zintzarria eta perkusio tramankuluak; eta looper bat darabil soinu horiek guztiak nahastu, ordenatu, eraiki eta apurtzeko. Iturri ugaritik edaten du berak: Rodrigo Amarante brasildarretik, Morente flamenko kantaritik, Bixenta Mogel, Antonio Molina, Pepe Marchena... Tradizioa eta inprobisazio askea bat eginda.

Amorante, Iban Urizar, se presenta solo en el escenario. Consigo lleva la guitarra española, ukelele, corneta, harmonium, cencerro y varios instrumentos de percusión; además, maneja un looper para mezclar, ordenar, construir y destruir todos estos sonidos. Amorante bebe de muchas fuentes: el brasileño Rodrigo Amarante, el cantante de flamenco Amorante, Bixenta Mogel, Antonio Molina, Pepe Marchena... Tradición e improvisación libre en uno.

**13** **Urtarrila** **Enero**
**Larunbata** **Sábado** **19:00**

## Antzerkia / Teatro

Sarrera / Entrada: 8€



# Etxeko saltsak

‘Relativity speaking’ Alan Ayckbournen endreduzko komedia da, kate dibertigarria. Ikusleek pertsonaiek baino informazio gehiago dute. Greg eta Ginny maitale zoriontsuak dira ustez. Ginny Philip maitale sekretuarengana doa, harremana uzteko. Gregek, susmo txarra hartuta, neskalaguna segiko du. Agertokian Aitziber Garmendia, Ane Gabarain, Miren Gojenola, Mikel Laskurain eta Aitor Fernandino.

‘Relativity speaking’ es una comedia de enredo de Alan Ayckbourn, una divertida cadena. El público cuenta con más información que los protagonistas. Greg y Ginny son amantes felices en apariencia. Ginny visita al amante secreto Philip para romper la relación. Greg, desconfía y sigue a su novia. Sobre el escenario Aitziber Garmendia, Ane Gabarain, Miren Gojenola, Mikel Laskurain y Aitor Fernandino.

**20** **Urtarrila** **Enero**
**Larunbata** **Sábado** **19:00**

## Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



# Shoah for solo violin and sacred

Jorge Grundmanek biolinerako sortutako obraren helburua da Holokaustoaren biktimen oroimena gogora ekarri eta publikoa hunkitzea. Vicente Cueva musikari eskarmentudunak interpretatuta eta Jaime Arranz aktoreak errezitatuta obrak sei mugimendu hartzen ditu bere baitan, beti ere Holokaustoari lotuak: Yom Hashoah, Getto Warzawskie, Terezín through the eyes of the children, Babi-Yar, Bergen-Belsen eta The last breath.

El objetivo de la obra escrita por Jorge Grundman para ser interpretada con violín es el de recordar la memoria de las víctimas del Holocausto y emocionar al público. Interpretada por el veterano músico Vicente Cueva y recitada por el actor Jaime Arranz la obra incluye seis movimientos, todos ellos relacionados con el Holocausto: Yom Hashoah, Getto Warzawskie, Terezín through the eyes of the children, Babi-Yar, Bergen-Belsen y The last breath.

**27** **Urtarrila Larunbata** **Enero Sábado** **18:00**

## Haurrentzat antzerkia / Teatro infantil

Iraupena / Duración: 50'
Sarrera / Entrada: 4€



# Jon Braun

4 urtetik aurrera familia osoari zuzendutako titere ikuskizuna. Anita Maravillas eta Portal 71 konpainiek Manolo Urbietaren kantua hizpide, ipuin berria asmatu dute bestelako balioekin. Indio ttipien herrian natura eta poza dira nagusi, baina bat-batean zoritxarra heldu eta Jon Braun eta bere arreba Malintxe banatu egingo ditu. Anai-arrebek ez dute etsiko elkar topatzeko saiakeran, maitasunak ematen baitie ausardia.

Espectáculo de títeres dirigido a toda la familia a partir de los 4 años. Las compañías Anita Maravillas y Portal 71 partiendo de la canción de Manolo Urbieta, han inventado un nuevo cuento. En el pueblo de los pequeños indios reinan la naturaleza y la felicidad, pero un día llega la desgracia y los hermanos Jon Braun y Malintxe son separados. Estos no cejarán en su empeño de reencontrarse, ya que el amor les da coraje.

**4** **Otsaila Igandea** **Febrero Domingo** **18:00**

## Haurrentzat antzerkia / Teatro infantil

Iraupena / Duración: 55′
Sarrera / Entrada: 4€




# Izar

Marie de Jongh antzerki konpainia sarituak (azkenekoz ‘Amour’-ekin) familiari zuzendutako lan berria dakarkigu, keinuz, maskaraz eta musikaz jantzitakoa. Izar sei urteko neskatila piano jotzaile handia bihurtzekotan da baina bizitzak bestelako patua ekarriko dio, ustekabeko labirinto emozionala, eta handik ateratzeko beste izar baten, itsas-izarraren, gidaritza beharko du.

La premiada compañía de teatro Marie de Jongh (recientemente con ‘Amour’) presenta una nueva obra dirigida al público familiar, aderezada de gestos, máscaras y música. Izar es una niña de seis años camino de convertirse en una gran pianista pero la vida le fija otro destino, un inesperado laberinto emocional. Por ello, ha de encontrar la estrella que le guíe, una estrella de mar.

**10** **Otsaila** **Febrero** **16:15**
**Larunbata** **Sábado** **18:30**

**Pailazoak / Payasos**

FRONTOIAN

Sarrera / Entrada: 6€

**katxiporreta**



# Pirritx eta Porrotx

## 'Borobilean'

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek 'Borobilean' izeneko ikuskizun berria aurkezten dihardute. Lan honen bitartez honako galderak egiten dituzte: Nork agintzen du etxean? Eskolan? Kalean? Lagun artean? Borobil batean taldean jarri eta arauak ezarri, ardurak banatu eta antolatzen ikasiko dute, elkarbanatzeko eta errespetuz elkarri eragiteko. Beti bezala, umorea, musika eta kontzientzia uztartuko dituzte.

Los payasos Pirritx, Porrotx eta Marimotots presentan su nuevo espectáculo Borobilean y nos preguntarán: ¿quién manda en casa? ¿en la escuela? ¿en la calle? ¿y entre las amistades? Se sentarán en corro, establecerán las normas, repartirán las responsabilidades, se organizarán y trabajarán el respeto. Como siempre, combinarán el humor, la música y la concienciación.

**17** **Otsaila Larunbata** **Febrero Sábado** **19:00**

**Antzerkia / Teatro**

Iraupena / Duración: 75'
Sarrera / Entrada: 8€



# Ez dok Hiru

## Euskal musikaren benetako istorioa

Ez dok Hiru ikuskizunaren bitartez euskal musikaren iruditeria kolektibora bidaiatzen dugu. Gure estilo propioaz, zoroaz, liluragarriaz hitz egiten du; gure musika maite duen ikuskizuna da. Gure musika altxorra da, gure oroimen historikoaren lekuko. Berau euskarazko umorezko lana da, helduei zuzendutakoa. Patxo Telleriak idatzia da eta berorrek interpretatzen du Mikel Martinezek lagunduta, Jokin Oregiren zuzendaritzapean.

*Ez dok Hiru* nos sumerge en el imaginario colectivo de la música vasca. De nuestro estilo, loco, asombroso… un espectáculo que rezuma amor por nuestra música. Nuestra música es un tesoro, testigo emocional de nuestra memoria histórica. Es un espectáculo de humor en euskera dirigido al público adulto escrito por Patxo Telleria e interpretado por el propio Telleria y Mikel Martinez, bajo la dirección de Jokin Oregi.

**23** **Otsaila** **Febrero**
**Ostirala** **Viernes** **20:00**

## **Musika** / **Música**

Sarrera / Entrada: 8€




# Jabier Muguruza

Jabier Muguruzaren izena aspaldi dago zizelkatuta Euskal Herriko pop eta rock eszenan. Les Mecaniciens talde aitzindaritik bide ugari zabaldu ditu eta bertan zein hemendik kanpo euskal rockaren adierazleetako bat da. Bakarlari gisa 15. diskoa den 'Leiho bat zabalik' aurkeztu berri du, eta oraingoan oinarri akustikoa alboratu eta gitarra elektriko eta elementu elektronikoekin lagunduta soinu-paisaia berri bat sortzen dihardu.

El nombre de Jabier Muguruza está esculpido en la escena de pop y rock de Euskal Herria. Desde aquellos pioneros Les Mecaniciens ha abierto nuevas sendas y es uno de los referentes del rock euskaldun fuera de nuestras fronteras. En 'Leiho bat zabalik', su disco número 15 como cantautor, ha dejado a un lado la faceta acústica para acompañarse de guitarra eléctrica y electrónica e investigar otros pasajes sonoros.

**24** **16:00** **Otsaila Febrero**
**25** **11:20 / 16:30**

## Haurrentzat ikuskizuna / Espectáculo infantil

Sarrera / Entrada: doan




# Kantari

## Haur Karaoke ikuskizuna

Goiena Komunikazio Taldeak sortutako karaoke ikuskizunak izugarrizko arrakasta dauka Debagoienean. Bergarako haur eta gaztetxoek atzoko eta gaur egungo euskal kantuak zuzenean interpretatuko dituzte karaoke erara, beraien lagun eta familiak ikusle dituztela. Txikienen artean euskara eta euskal kantuak bultzatzeko ekimen honek hainbat urte bete ditu eta belaunaldiz belaunaldi parte-hartzea oso handia izan ohi da.

Este espectáculo de karaoke creado por Goiena Komunikazio Taldea cuenta con gran éxito. Niños, niñas, jovencitos y jovencitas de Bergara interpretarán en directo canciones en euskera de ayer y hoy en formato karaoke ante sus amigos, amigas y familias. Esta iniciativa creada para fomentar el euskera y el consumo de música en esta lengua cuenta con ya numerosas ediciones y una gran participación.

| 3 | Martxoa Larunbata | Marzo Sábado | 19:00 |
|---|---|---|---|

**Musika / Música**

Sarrera / Entrada: zehaztear / a concretar



# Mozkorra parregarri

## Opera Komikoa

Txanton Garrotek jaso du ikasbidea, beti mozkor eginda ibiltzearren, eta munduaren aurrean barregarri utzi dute On Antonio, On Pedro eta On Diego zaldunek, Maritxo emaztearen lasaimenerako. Xabier Maria Munibe Peñafloridako Konde eta Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko bultzagile izan zenak 1764an idatzi zuen lana lehen euskal opera moduan hartzen da. Valen Moñuxek euskaratu eta 2015ean Bergarako Udaletxean antzeztu zuten obra. Orain Bergararen 750. urteurrenean berriro ikusi ahal izango da.

Txanton Garrote ha recibido la enseñanza, por andar siempre borracho, y ante el mundo lo han dejado en evidencia los caballeros Don Antonio, Don Pedro y Don Diego, para tranquilidad de su esposa Maritxo. La obra, escrita por el conde Peñaflorida Xabier Maria Munibe, es considerada la primera opera vasca. En 2015 Valen Moñux la adaptó al euskera y fue representada en el Ayuntamiento de Bergara. Ahora, en el 750 aniversario de la villa será representada nuevamente.

# 10 Martxoa Marzo Larunbata Sábado 19:00

## Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



# HQ Quartett y Susana Cordón

Habemus Quartett soka laukoteak eta Susana Cordon sopranoak XVIII. mendeko pieza barrokoen esentzia barreiatzen dute emanaldi honetan. 2014ko abuztuan Bilbon estreinakoz egin zutenetik arrakasta handia lortu du ikuskizunak. Hala, bi ataletan banatutako kontzertuan Grundman, Händel eta Whitbourn handien bederatzi pieza interpretatuko dituzte.

El cuarteto de cuerda Habemus Quartett y la soprano Susana Cordón transportan al oyente a la esencia de las piezas barrocas del siglo XVIII. Desde que fue estrenada en directo en Bilbao en agosto de 2014 este recital ha cobrado mucho éxito. En este concierto, dividido en dos partes, interpretan nueve piezas de Grundman, Händel y Whitbourn.

**17** **Martxoa Larunbata** **Marzo Sábado** **19:00**

## Antzerkia / Teatro

Sarrera / Entrada: 8€

Hizkuntza / Idioma: Gaztelera/Castellano




# 13 y martes

Glu Glu konpainia beteranoak ekoiztu du Jean-Pierre Martinezek idatzitako '13 y martes' komedia, 'Todo sonrisas' leloari eutsiz oraingoan ere. Jeronimo eta Patriciok lagun duten bikote bat gonbidatu dute afaltzera, baina Natalia bakarrik dator, lur jota, senarrak hartutako hegazkina itsasoan hondoratu dela jakinda. Baina bat-batean jakin dute primitibako saria irabazi dutela eta, ondorioz, eguna gorabeheratsua izango da erabat.

La comedia '13 y martes' ha sido escrita por Jean-Pierre Martínez y producida por la veterana compañía Glu Glu, que una vez más hace honor a su lema 'Todo sonrisas'. Jerónimo y Patricio invitan a cenar a una pareja amiga. Pero Natalia llega sola, desecha porque su marido viajaba en el avión que se ha estrellado en el mar. Acto seguido, descubren que han ganado el bote de la Primitiva…

**23** **Martxoa** **Ostirala** **Marzo** **Viernes** **22:00**

## Bertso jaialdia

Sarrera / Entrada: 8€



Argazkian 2017ko emanaldiko irudia.

# Erramu Zapatu bezperako bertso jaialdia

Udalak urtero Erramu Zapatuko bezperako bertso jaialdia antolatzen du, Bergarako Bertso Eskolarekin lankidetzan. Orain arte Udal pilotalekuan egin izan da, eta aurten lehenengoz Seminarixoan egingo da.
Urtero bezala, aurten ere punta-puntako bost bertsolari arituko dira saioan eta gai jartzaile Bergarako Bertso Eskolako kide bat arituko da.

El Ayuntamiento de Bergara lleva años organizando el festival de bertsos de la víspera del sábado de Ramos, en colaboración con Bergarako Bertso Eskola. Hasta ahora se ha organizado en el frontón municipal, y este año, por primera vez, se celebrará en Seminarixoa.
Al igual que en los años anteriores, participarán cinco reputados bertsolaris y los temas los pondrá uno o una de los miembros de Bergarako Bertso Eskola.

**25** **Martxoa Igandea** **Marzo Domingo** **18:00**

**Haurrentzat ikuskizuna / Espectáculo infantil**

Iraupena / Duración: 90′
Sarrera / Entrada: 8€

FRONTOIAN




# Go!azen

ETB1eko telesail musikal arrakastatsua gaztetxo eta gazteen artean fenomeno itzela bihurtu da aspaldidanik. Udaleku zorrotz batean gazte euskaldunen ibilerak kantuen bitartez kontatzen ditu telesailak eta berorren pertsonaiak ikono bihurtu dira askorentzat. Telesaila musika-ikuskizun bihurtu zutenetik herririk herri dihardute jendetzak batu eta kantuan jartzen.

Esta teleserie de ETB1 se convirtió en un fenómeno de masas para el público juvenil hace ya bastante tiempo. La serie cuenta las experiencias de una serie de jóvenes euskaldunes en unas colonias y sus personajes se han convertido en iconos para muchos y muchas. A raíz de ello, adaptaron la serie a espectáculo musical y reúne multitudes allá donde va.

**14** **Apirila** **Abril**
**Larunbata** **Sábado** **19:00**

## Dantza / Danza

Iraupena / Duración: 60'
Sarrera / Entrada: 8€

ertza



# La teta de Janet

Ertza taldeak inspirazio du Janet Jacksonek emanaldi batean titi bat erakutsi izanagatik sortutako iskanbila. Eta hori oinarri hartuta, gizartean dauden aurreiritzien, lotsaren eta moden gaineko hausnarketa egitera gonbidatzen gaitu; zer den normala eta zer ez, zerk asaldatzen gaituen eta zergatik. Jhana Electrorganic-en zuzeneko musikak lagunduta, oso estilo desberdineko lau dantzarik gizartearen arauak hankaz gora jarriko dituzte.

El grupo Ertza se ha inspirado en el escándalo que supuso el hecho de que Janet Jackson mostrara un pecho en una actuación. Tomándolo como punto de partida, nos invita a reflexionar sobre los prejuicios, pudores y modas; qué es normal y que no, qué nos saca de nuestras casillas y porqué. Ayudados por la música en directo de Jhana Electrorganic, cuatro bailarines pondrán las normas patas arriba.

**15** **Apirila** **Abril** **17:30**
**Larunbata** **Sábado** **19:00**

## Haurrentzat antzerkia / Teatro infantil

Sarrera / Entrada: doan

Bergarako Musika Eskola



# Erlauntzaren sekretua

Apirilan Musika programaren barruan, apirilak 15etik 20ra bitartean Bergarako Musika Eskolak programa aberatsa antolatuko du, publiko guztietara bideratuta. Horien artean nabarmentzekoa da ume eta gaztetxoei zuzendutako 'Erlauntzaren sekretua' obra.

Dentro del programa Apirilan Musika Bergarako Musika Eskola ha organizado una serie de actividades reseñables a celebrarse entre el 15 y el 20 de abril. Entre los actos programados, podemos destacar la obra 'Erlauntzaren sekretua' dirigida a niños, niñas, jovencitos y jovencitas.

**21** **Apirila** **Abril**
**Larunbata** **Sábado** **20:00**

FRONTOIAN

## **Musika / Música**

Iraupena / Duración: 90 ʹ
Sarrera / Entrada: 8€




# Artxipielagoa

Ezohiko ikuskizun berritzailea dugu hau, diziplina desberdinetan goi mailan aritzen diren artista oso ezagunek osatutakoa: Ainhoa Garmendia sopranoa, Andoni Egaña bertsolaria, Pello Ramirez txelo eta eskusoinujolea, Garikoitz Mendizabal txistularia eta German Ormazabal pianojolea. Gainera, emanaldi honetan bergarako talde batek ere parte hartuko du. Atzoko eta gaurko abestiak modu berritzaile eta parte-hartzailean plazaratzen ditu ikuskizun honek.

Este es un espectáculo inusual e innovador, interpretado por artistas muy conocidos que son punteros en cada una de sus disciplinas: la soprano Ainhoa Garmendia, el bertsolari Andoni Egaña, el chelo y acordeonista Pello Ramirez, el txistulari Garikoitz mendizabal y el pianista German Ormazabal. Además, en esta ocasión, contarán con la participación de un grupo de bergara. Este espectáculo ofrece canciones de nuestro pasado y actuales de unaforma innovadora y participativa.

**28** **Apirila Larunbata** **Abril Sábado** **18:00**

## Haurrentzat antzerkia / Teatro infantil

Iraupena / Duración: 50'
Sarrera / Entrada: 4€

**markeliñe**



# Euria

Oroigarri gisa irauten duen aterkin bat aterkitokian. Maite zuen norbait galdu izanagatik saminean hondoratuta dagoen pertsonai bat. Bertan behera utzitako aterkin bat, apurtuta. Pertsonaiak aterkin hau konpontzea erabakiko du, ohartu gabe ekintza horri esker une horretatik aurrera bizitza aldatuko duela. Haur eta familientzako Euria dantza ikuskizunak mintzen gaituena, galera handi zein txikia, baretzeko hartu beharreko denboraz hitz egiten digu.

Un paraguas colgado como recuerdo en un perchero. Un personaje sumido en la tristeza por la pérdida de un ser querido. Otro paraguas, roto y abandonado, que nuestro personaje decide arreglar sin saber que, desde ese momento, su vida empieza a cambiar. Euria, obra para niños y familias, habla de ese tiempo necesario en el que la tristeza nos acompaña para calmar lo que nos duele, las perdidas, grandes y pequeñas.

**5** Maiatza Mayo
Larunbata Sábado **19:00**

## Musika / Música

Sarrera / Entrada: 8€



# Voces de cine

'Voces de cine' ikuskizunak musika klasikoa jazz-arekin ezkontzen du. Hala, Ainhoa Zubillaga mezzosopranoak eta Iñaki Salvador pianojoleak XX. mendean telebistaren bitartez oso ezagunak egin ziren Mancini, Morricone, Rodgers eta bestelakoen piezak interpretatuko dituzte, honako filmetakoak hain zuzen ere: 'El mago de Oz', 'Con faldas y a lo loco', 'Desayuno con diamantes', 'Chicago' eta beste asko.

El espectáculo 'Voces de cine' fusiona la música clásica con el jazz. De esta manera, la mezzosoprano Ainhoa Zubillaga y el pianista Iñaki Salvador interpretan temas muy conocidos de Mancini, Morricone, Rodgers y otros que la televisión popularizó en el siglo XX, de películas tales como 'El mago de Oz', 'Con faldas y a lo loco', 'Desayuno con diamantes', 'Chicago'...

**12** **Maiatza Larunbata** **Mayo Sábado** **19:00**

**Dantza / Danza**

Iraupena / Duración: 55′

Sarrera / Entrada: 8€

**Maria Guerrero**



# El fin de las cosas

El fin de las cosas zuzeneko musikarekin landutako dantza garaikide ikuskizuna da. Gure harremantzeko moduen eta hartzen ditugun erabakien gaineko hausnarketa da. Guztia hankaz gora jarri arren aurrera egitea erabakitzen duzun une horretaz mintzo zaigu; erritmoa galtzen duzun une hori. Inertzia eta burugogorkeria, isiltzen dugun eta egiten dugunaren arteko muga preziso horretan.

El fin de las cosas es un espectáculo de danza contemporánea con música en directo, que gira en torno a cómo nos relacionamos y las decisiones que tomamos. Habla de ese momento en el que sientes que todo se pone patas arriba pero sigues hacia delante como si nada pasara, ese momento en el que pierdes el ritmo; habla de la inercia y de la cabezonería, de esa frontera entre lo que callamos y lo que hacemos.

**13** **Maiatza** **Mayo**
**Igandea** **Domingo** **12:00**

## Haur ikuskizuna / Espectáculo infantil

Sarrera / Entrada: 4€




# Kontu kontari

Nanu, Granu eta Kanuto txango bat egiteko prestatzen dabiltza. Arratsalde honetan, mendi tontor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan aurkituko dute loretxo bat eta… Kontu Kontari txontxongiloekin egindako antzerki kontzertua da betiko euskal kantuak erritmo ezberdinetara eramanez, nagusiek ahaztu ez ditzaten eta txikiek ikas ditzaten.Txotxongiloez lagunduta, familia osoarentzat ikuskizuna egiten dute.

Nanu, Granu y Kanuto preparan una excursión. Esta tarde deben de subir a una cina, pero encontrarán una lor en la punta de la manzana de la cuesta y… Kontu Kontari es un teatro-concierto realizado con marionetas que transforma las canciones tradicionales vascas en otros ritmos, para que los mayores no las olvidemos y las aprendan los más pequeños. Ayudados por marionetas, han creado un espectáculo para toda la familia.

SEMINARIXOA

# KULTURA PROGRAMAZIOA
# 2018 BERGARA

MUSIKA
DANTZA
ANTZERKIA
HAURRENTZAT EMANALDIAK

Bergarako Udala

urte

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ORAIN GIPUZKOA